

FUNTSEZKO JARDUERAK

Lehenik, gure enpresan, nahi dugun produktuaren diseinua egingo dugu. Produktuen kopurua lortutako materialaren arabera izango da. Etekinetan baliatuko gara gehiago egiteko. Bezeroei gure produktua etxera eramango diegu, beraiek jarritako helbidera hain zuzen ere.

Arazo bat balego gure zenbakia dutenez, deitu besterik ez dute egin beharko eta guk arazoari aurre egiten lagunduko diegu bezeroei.

Web-orrialdea gure esku dago, guk egingo dugu eta guk eramango dugu aurrera promozio ezberdinak eta aukera ezberdinak bertan ezarriz. Gure lokalean edukiko ditugun ordenagailuetatik kontrolatuko dugu web-orrialdea.

Guk egingo ditugun atalak produktu honen diseinua, publizitatea, garraioa, kostuaren eta diruaren antolaketa eta bezeroekiko harremanak izango dira. Garraioaz arduratzen den pertsonak ez dira enpresa batetik aterako, guretzako egingo dute lan.

Nagusitasuna eta garrantzia, noski, produktu ezberdinak egiteari emango diogu. Horregatik, irabazien zati handi bat makinetan inbertituko dugu.